

Eskulangilearen eta bere lantokiaren gogoramena. Evocación al artesano y su taller

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA

RESUMEN LABURPENA ABSTRACT

En este breve artículo escrito en euskera y castellano, el autor evoca algunos recuerdos sobre el artesano y su taller. Se trata de una visión general y superficial del pasado.

Euskaraz eta gaztelaraz idatzita agertzen den lantxo honetan eskulangilearen eta bere lantokiaren gogoramenak ematen dizkigu autoreak. Iraganeko bere oroitzapen orokor eta arin batzuk baino ez dira eskulangile eta haren lantokiari buruz.

In this short article written both in Basque and in Spanish, the author recalls some of his memories about the artisan and his workshop. He gives a general and superficial overview of a past time.

PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Artesanía, artesano, día de las candelas, lugar de trabajo.

Eskulangintza, eskulangile, kandelario eguna, lantoki.

Craftsmanship, artisan, candles' day, work place.

Dagoeneko joana da urtengo maiatza. *Maiatza* izanez ezagutzen den zuhaitza tinkotzeko garaia.

Araban, San Bizente Aranako *maiatza* zuhaitz zuzen-zuzen bat da, maiatzaren hirugarren egunean altxatzen dutena –Santa Kruz egunean- eta irailaren hamalugarrenean kendu Gurutze Santuaren Garaipen eguna; hala, Santa Kruzetik –maiatzaren- Santa Kruzetara irauten du herrixka honetako zuhaitz *maiatzak*; eta hemen, niri mintzatutako batzuk gogoratzen ziren nola *maiatza* altxatu gabe gelditu zen urte batean harri-erauntsiak hondatu omen zituen lur guztiak.

Aurtengo festa ospakizun batzuk atzean uzten goaz.

Otsaila, hilabete motza baina festa giroan benetan aberatsa.

Hilaren bian, Kandelario, argiaren eguna, kandela eta argizaria –argia- bedeinkatzeko eguna; San Blas, Santa Ageda bezpera, ohitura zahar beti jarraituz, etxerik etxe, baserriz baserri “legearekin kunpli dezagun” behin eta berriz abestuaz, eskean, “puska biltzen” ibiltzeko eguna eta ezin ahaztu eta txokoratuta utzi Iñauteria edo Karnabala, aurten otsailean ospatu duguna.

Gauza hauek honela direla, batek baino gehiagok pentsatuko zuen: baina gauza hauek, zer ikusia dute eskulangintzarekin? Eskulangintzarekin zerikusia duena edo izan duena, Kandelario eguna dugu, berarekin baitator lotua ezko edo argizarigilearen eskulana, antzina garrantzi handikoa, herri gehienetan aurkitzen zena.

Oroitu ditzagun gure elizetako hilobiak, Karlos III. –XVIIIgarren mendez geroztik sinbolikoak direnak, beren gainean argizaiolarekin estalita, elizkizunaren ohitura bat jarraituaz, etab.

Eman diezaiogun orain, arin eta axaletik, begiradatxo bat nire barneko oroitzapen bati: eskulangilea bere lantokian.

Baina aurretik bi ohar: Pertsona persona denetik, berarekin izan duela eskulangintza, eta eskulangintza hori beti eboluzioaren barnean bizi izan dela mundo honetako gauzak bezala.

Gure kaleetan barrena abiatzen bagara, ez baserri kutsu edo airea duten herrietaan bakarrik, gaurko egunean lantoki handi eta berriz beteak agertzen diren herri handietan ere, gutxiena uste dugunean etxe zahar baten behe-oinean eskulangile bat ikusiko dugu bere lan-saioan.

Horrelako lantokia gure begien aurrean jartzen zaigunean, denbora gutxiko bada ere, ahaztu egiten zaigu gaurko egunetan bizi garela. Gure pentsamendua hegan joaten zaigu aspalditxo igaroak diren urtetara. Eta denbora haietan, bat-batean, antzinako jokabideak eta bizi-moduak datozkigu gogora.

Egia esan behar badugu, gaurko makina eta beste mila sorkari berrik baztertu eta ezkutarazi egin dituzte eskulangintzatik bizi izan diren lantoki txiki horiek. (Eboluzioa edo aldaketa).

**ENRIKE KNÖRR
ZENARI...**

Gaurko egunean banaka, oso banaka, ikusten diren lantoki horiek begiratzen baldin badakigu, bere umilean edo apaltasunean esango digute garai bateko bizimodua nolakoa zen.

Eskulangintza, gehienetan, jatorriz dator. Bainan gure egunetan, eskulangiela bakarrik gertatzen da.

Bakar bakarrik jarraitzen du lanean bere lantokian. Erdi zabalik azaltzen den ate astun baten atzean, horma zikinduen artean eta zoru ezberdinean, erdi ilunpetan, han ikusiko dugu, zaharrez, kemen handienak galduztako eskulangilea.

Bere lan-tresnak gehienetan, bere gurasoek utzitakoak ditu. Eta horiekin agertzen du bere dohaina, lanean. Langile honek ez du lana txoro-txoro egiten. Baizik eskuetan daukan egitekoa bukatuta uzten saiatzen da. Bera lanerako bizi da, gauza txikienak ere berarentzat garrantzi handia du. Bere eskuetatik ateratzen den lanaren baitan dauka bere izen ona.

Baina era honetan, beti eboluzioaren mende, aldaketa pean, ondorenako ezer gutxi jakingo dute langile horietaz. Herrieko etxe batzuen izenak eta gizon argi eta trebe horiek egindako lan batzuek geldituko dira, lehenaren oroigarri.

Esta ha sido una mirada en visión general y harta superficial del artesano y su taller, evocada más bien en el recuerdo de mi pretérito.

Mis recuerdos se asoman a ese ayer en consunción. Por suerte o desgracia –y creo en lo primero- he vivido en un ambiente entrañable y familiar de ese mundo laboral representado por el obrador del artesano.

Al mentar de pasada las distintas celebraciones festivas que concurren en el mes de febrero he apuntado que en la Candelaria, el 2 de febrero, es cuando se bendicen las cerillas y las velas, por tanto, y añado ahora, se halla en el estrecho nexo con el artesano cerero.

Creo pertinente, pues, al hilo de esto hacer una somera semblanza de un cerero nacido en 1859, a quien tuve la ocasión, feliz ocasión, de conocer y tratar.

En su obrador, cuya puerta y dos ventanas, una de ellas enrejada, daban a una angosta y adoquinada calle de pomposo nombre, pasaba sus dilatadas jornadas de trabajo.

Aquí, en esta bajo, donde el motor brillaba por su ausencia, las calderas, cazos y pailas de cobre no eran motivos de ornato, sino útiles indispensables del oficio.

Con las primeras horas matinales, cuando la argizkilla –campana del alba- concede paso al día que apunta, el artesano daba comienzo al trabajo de cerería.

Para hacer –en este caso me parece más propio el empleo de este verbo que el de fabricar– las velas de clase Máxima y Notáble, de 60 y 30% de cera, respectivamente, y los gruesos hachones de dos y tres kilos, una vez encendido el hornillo preparaba la caldera con parafina dura, de alta graduación, y cera blanqueada en virutas, en grumos y la exponía al fuego para el derretido.

Para elaborar la cerilla preparaba la caldera con pequeños trozos de parafina blanda, de baja graduación y pedazos de panal de olorosa cera virgen, sin otro aditamento.

Para la época en que vivió este artesano, el consumo de la cerilla blanda era bastante restringido.

Ya nonagenario, viudo y sin hijos, el cerero evocaba los años de su niñez con cierta nostalgia. No olvidaba las horas de su infancia pasadas en el caserío de sus mayores, ni los caminos que tanto frecuentó y que hoy discurren a la sombra de los mismos hayedos y robledales.

Recordaba a la vetusta campana de la iglesia de su pueblo. Su oído retenía la vibración ronca que anuncia la oración del alba y el ángelus vespertino –ilun ezkile–. Así como el alegre y contagioso repiqueteo que llama a fiesta, y el grave y pausado doblar que comunica la triste nueva de una muerte, ni tampoco olvidaba la descompasada y atropellada tocada que pregona fuego en éste o aquel caserío.

El viejo cerero tuvo siempre presente a su pueblo natal, y éste, agraciado también, le cuenta entre los bienhechores de la Villa.

No se me oculta que el mundo que en ciertos aspectos evoca está llamado a morir, puesto que se halla en función al hombre-mundo y hoy avanzamos a través de la senda, fría senda, del mundo-máquina. El hombre pertenece a su tiempo. Afirmación que no debe ir en detrimento al cultivo de parcelas del pasado que nos resultan provechosas para hacer más humana la vida del presente y del mañana.